

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Osasun Departamentuak 406an handitu du langile medikoen lanpostu finkoen kopurua legealdi honetan

Nafarroa, Estatu osoan lanean ari diren fakultatibo tasa handiena duen komunitatea da

Asteartea, 2019.eko urtarrilak 22

Legealdi honetan onetsi diren enplegu publiko eskaintzek, orotara, medikuntza espezialista diren 406 plaza huts bete dituzte; horietatik, beraien alorretan espezialistak diren 327 fakultatibo, 56 Lehen Arretako (LH) medikuntzako espezialista, eta LHko larrialdietako 23, Luis Gabilondo Osasun zuzendari nagusiak prentsa aurrekoan jakinarazi duenez. Berarekin batera Santos Indurain Lehen Arretako gerentea eta Esteban Ruiz Nafarroako Osasun Zerbitzuko – Osasunbideko (SNS-O) Profesionalen zuzendaria egon dira.



Indurain, Gabilondo eta Ruiz gaur goizeko prentsa aurrekoan.

Gabilondok adierazi duenez, SNS-Ok, Estatu osoko osasun zerbitzu onenen artean jartzen duten kalitate ratioak eskaintzen jarraitzen du. Euskadirekin batera, Nafarroak osasun publiko onena duen komunitatea izaten jarraitzen du, Osasun Publikoaren Defentsarako Elkartearen Federazioak egiten duen urteroko txostenak erakusten duenez.

“Osasun Departamentuak esfortzu garrantzitsua egin du: estrukturak antolatzen eta profesionalak bereganatzen eta fidelizatzen; lan baldintzak hobetzen; EEP-OPEen bitartez aldi batekotasuna murrizten; ekipamendu teknikoak modernizatzen, Lehen Arretan eta Arreta Espezializatuan; derrigorrezko erretiratzea 70 urtera arte luzatzen... adierazi du.

Legealdi honetan nabarmena izan da, baita ere, plaza estrukturalen finkapena, lantalde organikoan plaza huts gisa sartzeko. Finkatutako 120 plaza guztiak honela banatzen dira: beraien alorretan espezialistak diren fakultatiboak (82), Lehen Arretako medikuntzako espezialistak (16), Larrialdi Zerbitzuko sendagileak (9), Larrialdietako Ohiko Zerbitzuko medikuntza espezialistak (2), Larrialdietako alboko sendagileak (4) eta pediatrak (7).

Esteban Ruizek azaldu duenez, EEP-OPE guztiak beraien leku

aldatze eta egokitzapen konkurtsoekin deitu dira, 2016, 2017 eta 2018an. Aldi berean, zehaztu duenez, teknikaren ikuspegitik ezinezkoa denez, Osasun Zerbitzu Nazionaleko ezein sistemak ezin ditu bi urtez behingo deialdiak egin, kolektibo medikoaren ordezkariak sindikalak erreibindikatzen duen bezala.

Arretako buruzagitza gehien deitu den legegaldia dela ere esan du, 44 zerbitzu buruzagitza plaza eta 43 sekzio buruzagitza, hain zuzen ere.

Profesional falta espezialitate batzuetan

Luis Gabilondo arduraturik agertu da lanpostu jakin batzuk edo hutsuneak betetzeko dauden zailtasunak direla eta, zenbait espezialitateetan behar beste profesionalik ez dagoelako, Pediatrian, Familia Medikuntzan, Anestesian edo Erradiologian, bertzeak bertze, Autonomia komunitate guztietan ohikoa den arazoa. Horrela, gogorarazi du, Nafarroako Osasun Zerbitzuak – Osasunbideak, Osasun Zerbitzu Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluaren akordioa sustatu zuela, MIR eskaintza handitzeko eta estaldura zaileko lanpostuen kontratazioa errazteko, landa guneeetan eta ospitaletan, batez ere.

%5,5eko hazkunde garbia langileen gastuan

Nafarroa da 2009-2017 epealdian osasun gastua handitu duen bost komunitateetako bat, eta 2018an osasun alorreko langile kopurua handitu duten sei etako bat.

Termino orokorretan, fakultatiboek dagokionez, gastu osoa %9,2 handitu da 2016tik, sendagileen soldatak jaso duen %3,75eko hazkundera barne. Hau da, langile medikoen hazkunde garbia %5,5ekoa izan da.

Gastuaren hazkunde horri esker langile medikoen kontratazio gehiago lortu ahal izan dira, eta karrera profesionala ordaindu ahal izan da. “Gobernu hau egunean dago osagai horren ordainketan, legealdiaren hasieran 2,5 milioi euroko ordainketa egin gabe zegoela aurkitu genuen arren”, adierazi du Esteban Ruiz Osasunbideako Profesionalen zuzendariak.

Nafarroa, lanean dauden sendagileen tasa handiena

Bertze alde batetik, Nafarroa da lanean medikuntzako espezialista tasa altuena duen komunitatea, 100.000 biztanle bakoitzeko 611, hain zuzen ere, Estatuko 478ko batez bestekoaren aurrean, Organización Médica Colegial izenekoak, Confederación Española de Sindicatos Médicos delakoarekin lankidetzan, sendagile demografiari buruz egin duen azterlanak erakusten duenez. Luis Gabilondo zuzendari nagusiak adierazi duenez, datu hori oso garrantzitsua da “Nafarroak medikuntzako profesional berriak fidelizatzeko eta erakartzeko erakarpenik ez duela esaten dutenei arrazoia kentzen dielako”.

Osasun arduradunek bertze neurri batzuk ere azpimarratu dituzte, oinarrizko legedian aitortzen diren kontziliazio neurriak barne hartzen dituen oporrei, lizentziei eta baimenei buruzko abuztuaren 23ko 71/2017 Foru Dekretua bertzeak bertze, oporrei, lizentziei eta baimenei buruzko eskubideak zabalduz. Horrez gain, hamabi hilabetetik beherako seme-alaben edoskitzearen ondoriozko baimen ordainduaren araupetzea EBko Justizia Epaitegiaren interpretaziora egokitzen du, gurasoetako edozeini eskainiz baimenaz gozatzeko aukera, bestea lanean dagoen ala ez kontuan izan gabe.

Halaber, denbora gutxi barru, sailak pizgarriei buruzko proposamen bat aurkeztuko du, estaltzeko zailak diren lanpostuak bultzatzeko, Osasunaren Mahai Sektorialean negoziatzeko.

Arreta ekintzen eta denboren batez bestekoak

Familiako medikuntza profesionalak zentro handietan egiten dituzten arreta ekintzen (presentziazko eta ez presentziazko hitzorduak, etxeetan eskaintzen den arreta eta kirurgia txikia) batez bestekoa 31 kontsultakoa da profesional eta egun bakoitzeko, profesional batzuen eta bertzeen artean aldeak dauden arren.

Pediatriari dagokionez, zentro handietako arreta ekintzen batez bestekoa 20 kontsultakoa da profesional eta egun bakoitzeko, eta hor ere aldeak daude profesional batzuen eta bertzeen artean.

Benetako batez besteko arreta denbora 9,78 minutukoa da kontsulta bakoitzeko, “Plataforma 10

minutos” izenekoak erreibindikatzen duenarekin bat etorriz.

Halaber, lan baldintzak hobetzeari dagokionez, gogorarazi da Osasun Sailak Nafarroako Sindikatu Medikoaren proposamena onetsi duela orain denbora gutxi, gehiegizko lan karga eta profesionalen osasunean dituen eraginak zainduko dituen batzordea sortzeko. Arazo horrek estamentu guztietan du eragina. Akordio hori joan den abenduaren 13an hartu zen SNS-Oren Laneko Osasun eta Osasun Korporatibo Batzordean.

Enpleguaren egonkortasun gehiago

Luis Gabilondo Osasun zuzendari nagusiak erlazio zuzena ezarri du aurreko Gobernuaren etapan nagusi izan ziren aldi batekotasun mailaren eta enplegu eskaintza publiko faltaren artean, eta azpimarratu duenez, Osasun Sailak, legealdi honetan, Administrazio Zentralak baimendu dituen plaza hutsen %100 onetsi du.

SNS-Oren 2016-2017 epealdiko kontratazioaren fiskalizazioari buruz Kontuen Ganberak egin duen txostena aipatu du. Bertan ikusten denez, 2017an aldi baterako kontratu kopurua %12 jaitsi da, 2016arekin alderatuz, eta “nabarmen” igo dira kontrataturiko pertsona kopurua eta kontratuen batez besteko iraupena. 2013ko 27,6 egunetatik 2017ko 54,89ra igo da, hau da, %50,3ko hazkundea.

Greba deialdia

Nafarroako Sindikatu Medikoak (NSM-SMN) egin duen greba deialdiari dagokionez, zuzendari nagusiak lasaitasun mezua helarazi die herritarrei, eta osasun arretan izanen duen eragina murrizteko eta pertsonen osasuna arriskuan jarriko ez dela bermatzeko beharrezkoak diren neurriak ezarriko direla iragarri du.

NSM-SMNren erantzukizunari dei egin zaio, eta sendagileen greba deialdi hori berriro aztertzeko eskatu da, gripe izurritearekin bat baitator.

Luis Gabilondok gehitu duenez, hala ere, Osasun Sailak atek irekita izanen ditu elkarrizketarako. “Argi eta garbi dugu testuingurua ulertzen bada eta lege eta eskumen esparruak errespetatzen badira, hobetzeko guneak eta akordiorako tartea aurkituko ditugula. Horretarako behar diren esfortzuak egiten jarraituko dugu”, adierazi du.

Gogorarazi duenez, greba deialdi hori Confederación Estatal de Sindicatos Médicos (CESM) izenekoak sustaturiko Estatu mailako kanpainaren barruan dago. Joan den abenduaren 12an mobilizazio egutegia aurreratu zuen, eta hori greba orokorrean amai daiteke. Izan ere, greba edo mobilizazio horiek Kataluniara, Andaluziara, Galiziara, Aragoira, Gaztela Mantxara, Errioxara... zabaldu dira daqoeneko.